

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3780

EBAZPENA, 2025eko abuztuaren 14koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez aurretiko administrazio-baimena eta eraikuntzako administrazio-baimena ematen baitira proiektu honetarako: 132 kV-eko zirkuitu bikoitzeko «Abadiano-Basauri 1 eta 2» linea elektrikoaren Lemoako adarra berriztatzea (10066 zenbakidun euskarriaren eta Lemoa TAre artean), Lemoako udal-mugaratean (Bizkaia) kokatuta dagoena.

Espedientea: 48-AT-Y-2024-00128.

AURREKARIAK

1.– 2024ko abenduaren 2an, I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak aurretiko administrazio-baimena eta eraikuntzako administrazio-baimena eskatu zituen proiektu honetarako: 132 kV-eko zirkuitu bikoitzeko «Abadiano-Basauri 1 eta 2» linea elektrikoaren Lemoako adarra berriztatzea (10066 zenbakidun euskarriaren eta Lemoa TAre artean). Proiektua Lemoako udal-mugaratean (Bizkaia) kokatuta dago.

2.– Energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituen martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuaren 10. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, aipatutako eskaera jendaurrean jartzeko iragarkia argitaratu zen 2025eko uztailaren 8ko EHAAn eta 2025eko uztailaren 1eko BAOn.

3.– Espedientea izapidetzean, eskatzaileak Lemoako Udalaren eta ETS-Euskal Trenbide Sarearen aldeko txostenak aurkeztu ditu.

4.– 2025eko ekainaren 27an, Uraren Euskal Agentziari, Enagasi eta Telefónica de España SAUri egoki iritzitako baldintza teknikoak aurkezteko eskaera bidali zitzairen. Ez da erantzunik jaso emandako epean.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuaren 20. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Hauetan ezarritako arauzko izapideak bete dira espedientean: Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 26ko 24/2013 Legea; Eusko Jaurlaritzaren martxoaren 31ko 48/2020 Dekretua; eta bat datorren gainerako legedia.

3.– 2025eko abuztuaren 12ko Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzako energia-arloaren aldeko txostena.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita, eta oro har aplikatu beharrekoak diren gainerakoak oinarri hartuta, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkariek hau

EBAZTEN DU:

Aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko baimena ematea I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresari, proiektu honetarako: 132 kV-eko zirkuitu bikoitzeko «Abadiano-Basauri

2025eko irailaren 9a, asteartea

1 eta 2» linea elektrikoaren Lemoako adarra berriztatzea (10066 zenbakidun euskarriaren eta Lemoa TAREN artean). Proiektua Lemoako udal-mugarrean (Bizkaia) kokatuta dago.

Ebazpen hau ematen da 48/2020 Dekretuan xedatutakoaren arabera, eta baldintza orokor hauek kontuan hartuta:

1.– Obrak egiteko, onetsitako proiektua bete behar da, kasu bakoitzean eskatu eta baimentzen diren aldaketak eginda.

2.– Martxan jartzeko epea hiru urtekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera.

3.– Lanak amaitutakoan, instalazioen titularrak Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko dio lanen amaiera, behin betiko onespena eman eta abian jartzeko akta egiteko.

4.– Obrak egiteko behar diren udal- eta probintzia-eskumenetako baimenak edo lizentziak gora-behera ematen da ebazpen hau, eta eskatzaileak nahitaez eskuratu beharko ditu baimen horiek guztiak. Era berean, hirugarrenen eskubideak galarazi gabe emango da, jabetza-eskubidea salbu utzita.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta beronen aurka gora jotzeko errekurtsioa jar dakioko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun Saileko Deskarbonizazioko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, eta hori guztia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikulua eta hurrengoaren arabera.

Bilbao, 2025eko abuztuaren 14a.

Bizkaiko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko lurralde-ordezkaria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.